

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2018 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Onespena ematea otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzkoa, aldatzeari

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (25 zenbakia) argitaratu zen 2016ko martxoaren 2an.

Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren 2018ko maiatzaren 17ko txostenean agerian jartzen da Ikuskatze Bulegoa kentzeko beharra eta, horren ordez, Zerga Ikuskaritzaren Administrazio Kudeaketa Atala sortzekoa, zuzenean zerbitzuari atxikita. Egitekoak nabarmenki bereizita daude: ikuskari taldeei laguntzeko administrazio kudeaketarena eta ISO 2011:2015 kalitatearen kudeaketa arauaren prozedura betekizunak kontrolatzearena.

Hori dela-eta, maiatzaren 23ko 313/2018 Foru Dekretuaren bidez, hasiera eman zitzaion Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretu proiektua egiteari.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretu proiektuaren araugintza testua egin ondoren, saileko diputatu titularrak aipatutako araugintza testua onetsi zuen, maiatzaren 25eko 328/2018 Foru Dekretuaren bidez.

Proposamenaren ondorioz egingo diren arautegi aldaketak dira, zehazki, egitura dekretuan Ikuskatze Bulegoari egiten zaizkion aipamenen ordez Zergak Ikuskatzeko Administrazio Kudeaketa Atala aipamenak txertatzea, eta sortuko den atal horren egitekoak berriro zehaztea.

Ikusi dira emando txostenak Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, xedatutakoa betez. Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren 4. artikulua, "Ogasun Zuzendaritzaren Egitura", bigarren idatz zatia, 2 zenbakia, "Ikuskatze Bulegoa" aipamenaren ordez "Zergak Ikuskatzeko Administrazio Kudeaketa Atala jarrita."

Bigarrena. Aldatzea Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren 12. artikulua, "Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren eginkizunak", 2. idatz zatia, 1. paragrafoa, "Ikuskatze Bulegoa" aipamenaren ordez "Zergak Ikuskatzeko Administrazio Kudeaketa Atala" jarrita.

Hirugarrena. Aldatzea Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren 12. artikulua, "Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruaren eginkizunak", 3. idatz zatia, orain duen testuaren ordez honakoa jarritz."

“3. Zergak Ikuskatzeko Administrazio Kudeaketa Atalaren eginkizunak dira:

a) Zergak Ikuskatzeko Zerbitzura bidalitako espedienteak eta agiriak jaso eta erregistratzea.

b) Aplikazio informatikoetan ikuskatzen diren pertsonen edo entitateen buruz dagoen informazio guztia bildu eta Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari ematea, eta, orobat, aplikazio horietan erregistratzea ikuskatzaileek egindako akta, txosten edo bestelako agirietan dauden intereseko datuak, zerbitzuaren helburuak betetzeko.

c) Beste administrazio publiko batzuei, edozein sektore publikotako erakundeei eta hirugarren batzuei eskatzea Ikuskatzeko Zerbitzuak egingo dituen egiaztapenentarako beharrezkoa den zerga arloko informazio garrantzitsua.

d) Ikuskatzeko egiaztapenaren amaieran egiten diren aktak eta txostenak izapidetzea, horren emaitza ekonomikoa erregistratuz, eta txostenak egitea, ikuskatzaileek egindako jarduketan ganean, Ogasun Zuzendaritzarako, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruarentzat eta ikuskatzailearentzat eurentzat.

e) Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari eskatzen duen administrazio laguntza ematea, behar dituen agiriak prestatuz eta ikuskatzeko administrazio prozedurak eskatzen dituen izapide guztiak bete direla egiaztatuz.

f) Bere arloko langileen lana planifikatu, koordinatu eta gainbegiratzea, helburuak zehaztuz, egitekoak emanez eta horien kontrola eginez, estrategia egokienak lantzeko. Horretarako, esleitutako giza baliabideak eta materialak optimizatuko dira, lanak egiteko denbora egokitu eta lehentasunak ezarri.

g) Kalitateari dagokionez, Kalitatearen Kudeaketa sistemaren betetze, egokitze eta hobetzearen ziurtzua, beharrezkoak diren prozedurak ezarri, inplantatu eta mantentzen direla bermatuz.

Laugarrena. Dagoen bezala uztea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren gainerako testua.

Bosgarrena. Argitaratzea, foru dekretu hau onetsi ondoren, aldaketa hauek onestearen ondorioz sortutako organigrama berria, Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua aplikatzeak publizitate aktiboaren arloan dakartzan indarreko eskakizunei jarraituz.

Seigarrena. Foru dekretu hau onartu ondorengo egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Gasteiz, 2018ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ